

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDUA

**Programa:** 942100 TEFFF

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Programa:** 942100 FOFEL

### SAILAREN MEMORIA

### MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

#### **I. MEMORIA**

Programa honetan jasotzen dira Arabako toki erakundeek beren finantzaketarako jasotzen dituzten ekarpen kuantitatiboki garrantzitsuenak.

#### **II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA**

##### 1.- Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

Helburua: Arabako toki erakundeak finantzatzeko laguntzea: kuadrillak, udalak eta kontzejuak.

##### 1.1 Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

19/1997 Foru Arauak Toki Erakundeak finantzatzeko Foru Funtzaren partidako funtsen banaketa arautzen du, besteak beste. Foru Arau hori ekainaren 30ean onetsi zuten Arabako Batzar Nagusiek, eta irailaren 25eko 26/1997 Foru Arauaren bidez zati bat aldatu zen. Haren bidez, Arabako toki erakundeak finantzatzeko marko berri bat sortu zen.

Arabako Lurralde Historikoko 2023rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauak, 30. artikuluan, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtzaren 263.638.607,00 euroko hasierako hornidura ezartzen du 2023ko ekitaldirako.

Era berean, arau horretan, funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzen duen aipatutako arauaren hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera, tarte osagarriaren zenbatekoari, 8. artikuluan jasotako arauaren arabera kalkulatu, udal eremuan euskara sustatzeko eta planifikatzeko funtsaren zenbatekoa erantsiko zaio, urriaren 7ko 4/2021 Legean ezarritakoaren arabera (baliabideak banatzeko eta foru aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko

#### **I. MEMORIA**

Este programa recoge las aportaciones cuantitativamente más importantes que perciben las Entidades Locales alavesas para su financiación.

#### **II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS**

##### 1.- Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales.

Objetivo: Cooperación en la financiación de las entidades locales alavesas: cuadrillas, ayuntamientos y concejos.

##### 1.1 Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.

La Norma Foral 19/1997 que regula, entre otros aspectos, la distribución de los Fondos con que se dota la partida del Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales fue aprobada con fecha 30 de junio por las Juntas Generales de Álava, y parcialmente modificada por Norma Foral 26/1997 de 25 de septiembre. Con ella se crea un nuevo marco de financiación para las entidades locales alavesas.

La Norma Foral 23/2022, de 20 de diciembre, de ejecución presupuestaria del Territorio Histórico de Álava para el año 2023, en su artículo 30, establece una dotación inicial del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de Álava para el ejercicio 2023 de 263.638.607,00 euros.

Asimismo, en dicha Norma, según la disposición adicional undécima, que modifica la Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, reguladora del fondo, al importe del tramo complementario, calculado según las reglas contenidas en el artículo 8, le será añadido el importe del fondo de fomento del euskera y planificación en el ámbito municipal, según lo establecido en la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de los

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA

**Programa:** 942100 TEFFF

2022-2026 aldiari aplikatuko den metodologiari buruzko Legea). Euskara sustatzeko funts horren zenbatekoa 144.450,00 euro da 2023ko ekitaldian.

Funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauaren 7. artikuluko 2. apartatuan ezarritakoarekin bat etorriz, Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa 5.168.000,00 euroko osagarri gehigarri batez hornituko da, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontuen kargura.

Zenbateko horiek, guztira, 268.806.607,00 euro egiten dute, eta horixe da 2023rako "Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa" partidaren hasierako aurrekontu esleipena.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak jakinarazi zuen Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren behin betiko zenbatekoa, 2023ko ekitaldiari zegokiona. Horren likidazioa, guztira, 271.234.030,80 euro da, data horretan indarrean zegoen araudiaren arabera.

Hala ere, Itunaren Batzorde Mistoaren 2022ko abenduaren 27ko bileran, erabaki zen Euskal Autonomia Erkidegoak aldi baterako energia eta kredituko kreditu erakundeak eta finantza establezimenduen kargetan parte hartzea. Diru sarrera horiek zergaz kanpoko ondare prestazio ez-tributarioak dira eta, beraz, ez dira tributu itunduak; hortaz, Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Arauak ezartzen dituen banatu beharreko baliabideetatik kanpo daude.

Dena den, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak gai hori aztertu ondoren 2023ko otsailaren 15eko bilkuran, Arabako Foru Aldundiko Foru Gobernu Kontseiluak egoki iritzi zion lurralde historikoak diru sarrera ez-tributario horietan duen partaidetzaren % 39,23 toki erakundeekin banatzeari. Diru sarrera horien kuantifikazioa 3.335.753,69 euro da, eta zenbateko hori funtsaren likidazio honetan sartu da, aipatutako 19/1997

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Programa:** 942100 FOFEL

presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco aplicable al periodo 2022-2026. Para el ejercicio 2023 el importe de este fondo de fomento del euskera se fija en la cantidad de 144.450,00 euros.

De acuerdo con lo establecido en el apartado 2 del artículo 7 de la Norma Foral 19/1997, de 30 junio, reguladora del fondo, se dota un complemento adicional al Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales con cargo a los Presupuestos del Territorio Histórico de Álava de 5.168.000,00 euros.

La suma de todos los conceptos alcanza la cifra de 268.806.607,00 euros, consignación presupuestaria inicial de la partida "Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales" para el ejercicio 2023.

Por parte de la Dirección de Finanzas y Presupuestos se comunicó el importe definitivo del Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales correspondiente al año 2023, cuya liquidación alcanza la cifra de 271.234.030,80 euros, según la normativa vigente a esa fecha.

No obstante, en la reunión de la Comisión Mixta del Concierto de fecha 27 de diciembre de 2022, se acordó la Participación del País Vasco en los gravámenes temporales energéticos y de entidades de crédito y establecimientos financieros de crédito. Dichos ingresos tienen naturaleza de prestación patrimonial no tributaria de naturaleza extrafiscal, por lo que no se trata de tributos concertados y por lo tanto se encuentran fuera de los recursos a distribuir fijados por la Norma Foral 19/1997, de 30 de junio, reguladora del fondo foral de financiación de las entidades locales de Álava.

Sin embargo, tras tratar el Consejo Vasco de Finanzas este asunto en su sesión de 15 de febrero de 2023, por parte del Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Álava se considera conveniente repartir con las entidades locales el 39,23% de la participación del Territorio Histórico en estos ingresos no tributarios, cuya cuantificación asciende a 3.335.753,69 euros, incluyéndose este importe en esta liquidación del

## 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDUA

**Programa:** 942100 TEFFF

Foru Arauaren 7.3 artikularekin bat etorritz.

Beraz, datu berri horiek aplikatu dira, bai Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandakoak, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtzari 2023ko ekitaldiaren likidazioan guztirakoan zer zati dagokion zehazteko, bai kuadrillek emandakoak, 19/1997 Foru Arauaren 8. artikularen b) apartatuan aipatzen diren zerbitzuak emateko benetan sortu diren gastuei buruz.

Era berean, abenduaren 29ko 61/2017 Foru Dekretuari jarraituz, kontratatu diren zerbitzuetako langileen gastuak eguneratu dira, 2023rako Estatuko Aurrekontuen Legean ezarritakoarekin bat etorritz, sektore publikoko langileen soldata baldintzei dagokienez.

Horrekin guztiarekin, Arabako toki erakundeen 2023ko likidazioko azken partaidetzak lortu dira, eta udal, kuadrilla eta kontzejuetarako islatzen dira, honako banakapen honen arabera:

A) Arabako toki erakundeei Arabako Foru Aldundiak eskualdatu dizkien zerbitzuengatik dagokien partaidetza:

Gasteizko Udalari, eskualdatu zaizkion Gizarte Ongizateko zerbitzuengatik, 3.078.079,62 euro. Kopuru hori oso-osorik ordaindu zen 2023ko ekitaldian.

B) Kuadrillen partaidetza finkoa eta 19/1997 Foru Arauak 8. artikularen b) apartatuan xedatzen duena aplikatzearen ondoriozko partaidetza.

B-1) Kuadrilla bakoitzaren partaidetza finkoa, batzordeko kideek administraziorako eta funtzionamendurako azpiegitura dela eta eragindako gastuengatik.

Kuadrillei kontzeptu horrengatik dagokien partaidetza 67.613,86 euro da, eta, guztira, 405.683,16 euro da hori, banatutakoa adinako zenbatekoa, alegia.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023

**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y  
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

**Programa:** 942100 FOFEL

Fondo, según el artículo 7.3 de la citada Norma Foral 19/1997.

Por tanto, se ha procedido a aplicar los nuevos datos aportados, tanto por la Dirección de Finanzas y Presupuestos referidos a la cuantía total que representa el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales para su liquidación en el ejercicio 2023, como por las cuadrillas sobre los gastos reales efectivamente realizados en la prestación de los servicios contemplados en el apartado b) del artículo 8 de la Norma Foral 19/1997.

Así mismo se han actualizado los gastos de personal de los servicios contratados según el Decreto Foral 61/2017, de 29 de diciembre, de acuerdo con lo establecido en la Ley de Presupuestos del Estado para el año 2023, en lo que respecta a las condiciones salariales de los empleados del sector público.

Con todo ello, se obtienen las participaciones finales en la liquidación 2023 de las distintas entidades locales de Álava, las cuales se reflejan para los ayuntamientos, cuadrillas y concejos según el siguiente desglose:

A) Participación por la prestación de servicios traspasados desde la Diputación Foral de Álava a las entidades locales alavesas:

Al Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, por los servicios de Bienestar Social transferidos, 3.078.079,62 euros. La citada cuantía fue abonada en su totalidad durante el ejercicio 2023.

B) Participación fija de las cuadrillas y participación derivada de la aplicación del apartado b) del artículo 8 de la Norma Foral 19/1997.

B-1) Participación fija a cada una de las cuadrillas, en atención a los gastos de infraestructura administrativa y funcionamiento originados por los miembros de su Junta de Cuadrilla.

La participación de las cuadrillas por este concepto es de 67.613,86 euros alcanzando un total de 405.683,16 euros, cuantía idéntica a la ya repartida.

**2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA****LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023****Saila:** 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUA**Departamento:** 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO**Programa:** 942100 TEFFF**Programa:** 942100 FOFEL

B-2) Kuadrillek, zerbitzu jakin batzuk emateagatik Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean duten partaidetza, 19/1997 Foru Arauaren 8. artikuluko b) apartatuan ezarritakoaren arabera.

Apartatu horretan, zerbitzuen moduluak eguneratu dira, legeria aplikagarrian 2023ko ekitaldirako baimendutako soldata igoerak aplikatzearen ondoriozko behin betiko zenbatekoarekin.

Benetako partaidetza kontzeptu horrengatik 1.824.541,33 euro da.

C) Toki erakundeen benetako partaidetza oinarrizko tartean 72.661.598,20 euro da. Hona hemen banaketa:

2.010.614,65 euro	Kuadrillak Cuadrillas
65.150.154,39 euro	Udalak Ayuntamientos
5.500.829,16euro	Kontzejuak Concejos

D) Udalei tarte osagarrian dagokien partaidetza 196.599.882,18 euro da.

1.2 Konpentsazio dirulaguntza, 60.101,21 euro baino gutxiago jasotzen dituzten udalentsat.

Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Batzordeak 1998ko irailaren 9ko bilkuran erabakitakoaren arabera, 2023ko ekitaldian Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean 60.101,21 eurotik beherako partaidetza eduki duten udalei egin beharreko konpentsazioari aurre egin ahal izateko partida bat erreserbatu zen, horrela gutxienez kopuru hori jaso zezaten. Behin udalei banatu beharreko funtsak banatuta, denek jaso dute aipatutako zenbatekoa baino handiagoa; horrenbestez, ez da beharrezkoa izan partida honen bidez finantzaketa osagarrira jotzea.

B-2) Participación de las cuadrillas en el Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales como consecuencia de la prestación de determinados servicios, a tenor de lo establecido en el artículo 8, apartado b), de la Norma Foral 19/1997.

En este apartado se ha procedido a actualizar los módulos de los diferentes servicios con el importe definitivo resultante de la aplicación de los incrementos salariales autorizados para el ejercicio 2023 en la legislación aplicable.

Por este concepto la participación real asciende a 1.824.541,33 euros.

C) La participación real que les corresponde a las diferentes entidades locales en el tramo básico es 72.661.598,20 euros, que se distribuyen:

D) La participación que les corresponde a los ayuntamientos en el tramo complementario es de 196.599.882,18 euros.

1.2 Subvención compensatoria para los ayuntamientos con percepción de Fondos inferiores a 60.101,21 euros.

En base a lo convenido en el seno del Consejo Territorial de Administración Local y Finanzas en su sesión de 9 de septiembre de 1998, se reserva una partida para poder hacer frente a la compensación a realizar a aquellos ayuntamientos cuya participación en el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de 2023 fuese inferior a 60.101,21 euros, de forma que percibiesen al menos esa cantidad. Una vez realizada la distribución de fondos a los ayuntamientos, todos ellos sobrepasaron la citada cantidad, por lo que no ha sido necesario recurrir a la financiación complementaria a través de esta partida.